

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Hiri hartan izan zen
Mikel Markez.
Elkar.
Iraupena: 54'47".
14 euro.

Bidaiak bere baitan duen malenkonia eta jakinduria

MIKEL MARKEZ musikariak lan dezentekaleratu izan ditu eta hala jarraitzen du, entzule askok gogoia iraganean jorratutako kantu haietan zizelkatuta badu ere. Kantariek bidaiatzeko eta bestelako herri eta bizipenetan murgiltzeko duten aukeraz baliatuta, kolore eta usain mota asko dituen *Hiri hartan izan zen* lana prestatu du. Alboan Pello Ramirez, Arkaitz Miner, Iñaki Salvador, Jean Phocas bezalako musikari handiak izan ditu eta horiek Markezek

musikatutako istorio-pasarte biluziei giro egokia gehitu diete. Folka —tradicionala zein aurrerakoiagoa—, countrya, tangoa, flamenkoa eta Balkaneetako tantak... Hemengo eta kanpoko poeta esanguratsuen testuak bere eginenez eta kantu propio sinesgarriez baliatuta, malenkonia, unibertsaltasuna, maitasuna, erbestea eta bestelakoak ekarri dizkigu barrenera.

www.mikelmarkez.com

Mikel Markez

«Askotan inportanteagoa da zer sartu behar duzun baino, zer kendu behar duzun antzematea»

“Lortzea asko kosta izanak egiten ditu gauzak berezi”, galbidean dagoen balorea.

Gaur egun haurrek gauzak ia desiratu baino lehen esku- ra dituzte eta hori oso pedagogia txarra da. Baiezkoak entzutera ohitzen baduzu, ez da prestatuko bizitzako ezezkoetara.

Euskal Herriko musikari onenarikoak alboan izan arren, instrumentalki disko biluzia egin duzu.

Sortzean bi elementurekin abiatzen naiz, gitarrarekin eta ahotsarekin. Horrela ongi funtzionatzen badute ongi, bestela malo! Askotan inportanteagoa da zer sartu behar duzun baino, zer kendu behar duzun antzematea. Eta musikari bikainak inguruan badituzu, haien atzean ezkatatzeko tentazioa izan dezakezu.

Berdin biluztu daitezke kantuetako hitzak zureak ez direnean? Zure eginen dituzu?



ANDER GILLENEA

Jakina. Kantu bat egiteko poema bat aukeratzen duzunean, poema horrek esaten duenarekin bat egiten duzula adierazten ari zara. Gainera, kantatzen dugunarekin kontsekuentzia izatea beste erremediorik ez dugu. Gure ofizioan zintzotasuna ezinbestekoa da.

“...Hirugarren egunean erretiratzeko” beharrean, Markezek jakin du garai eta publiko desberdinei aurre egiten, ezta?

Orain dela urte batzuk ez nekien oso ongi norentzat, zergatik edo zertarako ari nintzen. Kantuek erakartzen eta uxatzen dute jendea. Oso istorio politak kontatu dizkidate nire kantuei buruz. Zorionez, 25 urte gutxiago dituztenek telefonoetan nire kantu batzuk dituzte. Eta Marti-korenarekin kantatzen dudanean nik baino 25 urte gehiago dituztenek zoriontzen naute.

Zure hitzak dituen kantua egin zait eraginkorragoa. Kasualitatea ote?

Kuriosoa da, baina nire kantu eza-gunenak neronen hitzekin egindakoak dira. Azkenaldian nik idatzitako testuekin lanean ari naiz, eta oso posible da datorren diskoa osoki nik egindako hitzekin eta musikekin osatzea. Eta kasu horretan gitarrak bat eta ahots bat nahikoa izango dira. ■

